



216

ALEA

arabako aldizkaria



RAABUB MOHAMED ETA UAHBA ABDELMAATI

**"HEMEN ERE JENDEAREN AURREIRITZIAK
ETA ESTIGMATIZAZIOA SUFRITZEN DITUGU"**

Bizikletentzako aparkaleku seguruak



430 LEKU



Bideoz zainduta



Sarrera App bidez

. Santa Barbara plaza Berria!

. Adurtza

. Postetxea

. Mendizorrotza

. Santiago ospitalea

. Arabako Campusa

. Autobus geltokia



ALEA 216

2019-11-22 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA: MIRIAN BITERI

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Ezohiko gaixotasun degeneratiboak ikusarazteko kontzertu solidarioa antolatu dute.
- 10 **Protagonista.** Raabub Mohamed eta Uahba Abdelmaati.
- 14 **Iritzia.** Oier Llinas, 'Framing'-a.
- 16 **Sarean.** #ZaldiUrdina.
- 18 **Politika.** Diputazioaren aurrekontuak aurkeztu dituzte.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Gizartea.** Kulturarteko 72 bazkari egin dituzte Bizilagunak ekimenean.
- 24 **Musika.** Igor Muñoz, 'MBW.'
- 26 **Teknologiak.** Arrate Sanchez, 'Algoritmoak aukeratuak?'.
- 28 **Denbora-pasak eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Oier Llinas, Arrate Sanchez, Igor Muñoz.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Mamuaaren kontra, piztia talde indartsua

Ezohiko gaixotasun neurodegeneratiboak ikertu eta ikusarazteko asmoz, kontzertu solidarioa antolatu du Leocadia Zabalate elkarteak. Besteak beste, Angela Pradells Retegi gazte gasteizarrak bizi duen maiztasun gutxiko eritasunari aurre egiteko ikerketa proiektuetara bideratuko dute jasotakoa.

Testua: **Anakoz Amenabar.**

Angela Pradells Retegi, Imanol aita
—erdian— eta bi elkartekiderekin batera.

LEOCADIA ZABALATE ELKARTEA

Erresonantzia magnetikoan tigrearen aurpegia ageri da. Garunean gehiegizko burdina metatzeko joera duen gaixotasun neurodegeneratiboak halako forma hartzen du, eta irudi hori bera hartu dute ENACH elkarteak, maiztasun gutxiko eritasun hauek ikertu eta ikusaraztea helburu duen elkarteak. Estatu mailako egitasmo honi esker, Braincure proiektua martxan jarri dute, eta "piztiaren" irudiaren ezaugarriak dituzten 11 gaixotasun desberdin ikertzen ari da Sevillan lanean ari den zientzialari talde bat; haurrei eragiten dieten eritasunak izan ohi dira Pablo de Olabide unibertsitateko aditu talde honek aztergai dituenak, gehienetan umearen lehendabiziko hamar urteetan sintomak agertu eta gaixotasun suntsitzaileak bilakatzen direnak.

Sevillan egiten ari diren lanari adi jarraitzen dioten 70 familietako bat da Imanol Pradells eta Esther Retegi arabarrena. Gaixotasun-familia horietako bat du Angela euren alabak, ingeleseko akronimo soil batez identifikatu dutena: FAHN (*Fatty acid hydroxylase-associated neurodegeneration*). Gaixotasunari ezohiko izen hori jarri arte, baina, 17 urte igaro zituzten analisi, mediku eta ospitale artean. Angelak lau urte zituela igarri zituzten gurasoek lehendabiziko mugikortasun arazoak, ondoren etorriko zena imajinatu ezinik. Eta diagnostikorik gabe pronostikorik ez, eta, ondorioz, tratamendurik ere ez. "Mamu baten kontra" borrokan aritu diren sentsazioa dute biek. "Urte asko ibili gara ospitalez ospitale diagnostikoaren bila, froga asko egin ditugu, gaixotasunari izena jarri ezinik, degenerati-



GAIXOTASUNA ETA BERAK DAKARRENA ONARTZEKO BIDE "GOGORRA" GOGORATU DUTE GURASOEK

'IZAN ZAITEZ NEU' KONTZERTU SOLIDARIOA ANTOLATU DUTE, HILAREN 28AN, JIMMY JAZZEN

boa zela agerikoa zen arren", azaldu du Retegik. Hasiera batean mugikortasun arazoa zirudiena, okertzen joan zen. Endekatze-prozesua azaleratzen joan zen gutxinaka; korrika egiteari utzi, bizikletan eta oinez ibiltzeari utzi, hanketan paralisia, desoreka kognitiboak... Eta bitartean Angelaren gaixotasunari izena jarri ezinik, 21 urte zituenean identifikatu zuten arte, orain dela lau urte. Argi bat piztu zen. "Medikuek amore eman zutenean –haiek, ez guk– deitu ziguten esateko aspaldi egindako froga genetiko batean azkenean topatu zutela zer zen", gogoratu du amak. Genetikoak dira mota honetako gaixotasunak, mutazioa duen genearen eraginez momentu jakin batean sortzen direnak, umetan gehienetan. Izenaz gainera, ordea, gaixotasunari aurre egiteko "esku hutsik" daudela azaldu du aitak, aurrekari eskasak eta momentu honetan eritasun hori duten lagunak atzamarrekin zenbatu daitezkeelako: "Zer den badakite eta izen bat ipini diote, baina horren inguruko informaziorik apenas dute". Munduko hogeit bat kasu ikergai dituzte Ottawako (Kanada) Cheo ospitalean, tartean Angelarena, eta hara ere begira daude: "Beharbada hogeit urte barru jakingo da zeozer". Kanadan gaixotasunaren mekanismo guztiak ezagutzeko helburua duten bitartean, tratamendu bila ari dira Sevillan, nondik sortu eta zergatik den jakin gabe. Hiesaren kontrako tratamendurik ez zegoenean bezala, farma-koak nahastuta "medikamentu koktel bat" prestatzeko lanetan ari dira, besteak beste Angelaren zelulekin egindako frogei esker. "Gaixotasuna kronifikatzea litzateke helburua, nahiz eta gurean eritasuna oso aurreratuta egon".

Doluei, aurre

Gaixotasunaren prozesu osoan, bata bestearen atzetik "hainbat doluri" aurre egin behar izan diotela gogoratu du Retegik. Duela hiru urte bizi izan zuten momentu zailenetako bat, Angelak ahotik jan eta edan ezin zuela ikusi zutenean. "Hori ere existitzen zenik ere ez genekien. Jan gabe bizi? Oso zaila da imajinatzea nola bizi zaitezkeen horrela". Elikadura zunda batetik elikatzen da gaur egun Angela, bestelako hainbat zailtasun tarteko. Etengabeko





zaintzapean, oztopoak oztopo, ez dute alabarekin batera kalera irteteko aukera galtzen. "Mamua batzuetan desagertzen da, eta bizitza normal bat egiten saiatu behar zara, horrek ematen dizulako adorea aurrera jarraitzeko: lanean jarraitu, atera, ahal denean oporretan joan... Orain dela hiru urte Gasteizen mugitzen gara, asko jota Araiara buelta eginez".

Gaixotasuna "onartu" arteko bidea da zailena, amak azaldu duen moduan. "Hasieran izualdi ederra hartu genuen, baina zer zetorren imajinatzen ez genuenez... Bakarrik sentitu gara etapa batean, batetik bestera joan eta inork ezer esaten ez zigulako, eta momentu gogorak izaten dira. Dolu askori egin behar zaie aurre prozesuan; une batean gaixotasuna egonkortu dela ematen du, baina laster dator beste zeinu bat kontrakoa adierazten duena...". Gaixotasuna eta berak dakarrena onartzeko bidea konplexua dela esan dute, baina horri ere "onena" ateratzen saiatu dira: "Gertatzen den hau gure bizitzaren erdigunean dago, geure egiten dugu, gurekin doa eta bizitza honek eskaintzen diguna hartuko dugu onena bihurtzen saiatuz".

Gaixotasuna "lurrikara" baten antzera izan dela gogoratu du aitak. Angela epizentroan, inguruko denak astindu dituela nabarmendu du, eta hainbat "bidesari" ordaindu behar izan dituztela. Dena baldintzatu du gaixotasunak. Ohiko lanaldia egitea ere ezinezkoa izan dute, eta lan murrizketak izan dituzte urte hauetan guztietan. Gaixotasunak jarritako zamari, gainera, egokitze prozesuan hainbatean "ikusezin" sentitu direla gogoratu du, eta Administrazioak bide hori "maldan gora" jarri diela: "Benetako beharra izan dugunean, bizi izan ditugun momentu kritikoetan batez ere, oso bakarrik sentitu gara. Eta egia da langile pribilegiatuak garela, udal langileak; enpresa pribatuan izan bagina, kale gorrian geundeke honezkero".

Imanol Pradells, Idoia Agirre eta Esther Retegi, Gasteizko Alde Zaharrean. ESTITXU

UGARTE





Aurtengo Gasteizko jaietan Zintzarri blusa eta neska kuadrillak antolatutako ekitaldi solidarioa. LEOCADIA ZABALATE

Retegi eta Pradellsen lagun eta lankide artera ere heldu da "Iurrikara", gertutik bizi izan baitituzte Angelaren gaixotasuna eta gurasoen borroka nekaezina. "Lan murritzeta horietako batean ezagutu nuen Imanol, eta prozesuaren krisi eta distira momentuak gertuko sentitu ditut", azaldu du Idoia Agirre gurasoen lankide eta lagunak. Antolatu berri duten Leocadia Zaballate elkarteak lehendakaria ere bada Agirre; ENACH elkarteari jarraiki, Araban maiztasun gutxiko gaixotasunen alde lan egin eta ikusarazteko elkartea da.

Momentu gazi eta gozoen artean, urte hauetan guztietan Angelak "emandako guztia" nabarmendu nahi izan du Agirrek. "Adibide bat jartzearen, igogailu bat jarri zuten eskolan beste haurrek ere erabiliko dutena, edo bere datu genetiko eta emaitza guztiak; hori altxor bat da. Bere bizitza gogorren beste alde hori ederra da".

Esker ona emateko hitzordua jarri dute. Angelak eta berak bezala ezohiko gaixotasunak dituztenen lekuan jarri eta ikerketa bultzatzeko asmoarekin, jaialdia antolatu du Leocadia Zaballate elkarteak. Anarik, Jon Basagurenek, Libek eta Garik jarriko diote musika, hilaren 28an, 20:30ean, Gasteizen antolatu duten elkartasun festari. "Piztiaren" irudiarekin Jimmy Jazz aretoa betetzeko deia egin dute gurasoek: "Ezinbestean, asko galtzen amaitzen dugu borroka honetan. Baina, aldi berean, ikasi dugu bereizten zer den garrantzitsua eta zer ez, eta baita hori baloratzen eta zaintzen ere. Ruperrek dioen bezala, 'Zaindu maite duzun hori'". ■■■





EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

24 h

900 840 111

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

"Emakume sahararra garaiezina da; ez gara inoiz nekatuko"

RAABUB MOHAMED ETA UAHBA ABDELMAATI SAHARAKO AKTIBISTAK

Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Egunarekin batera ospatzen ari da Sahararekiko Elkartasuna Adierazteko Europako Konferentzia, Gasteizen. Han parte hartuko dute Raabub Mohamedek eta Uahba Abdelmaatik; saharar herriaren borrokan emakumeak "funtsezko zutabea" direla azaldu dute.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

EUCOCO Saharar Herriarekiko Laguntza eta Elkartasuna Adierazteko Europako Konferentziaren 44. edizioa ospatzen ari da Gasteizen. Marko horretan, emakume sahararren topaketa antolatu dute, eta kontzentrazioa larunbatean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Egunaren harira. Raabub Mohamed (Smara, 1974) eta Uahba Abdelmaati (Aaiun, 1974) izango dira konferentzian. Kuban, diasporan, unibertsitate ikasketak egin ondoren, Gasteizen bizi eta lan egiten dute biek, eta Beituha Emarek Maichan elkarteak sortu dute Saharako emakumeak laguntzeko. Lurralde okupatuetan bizi diren emakumezkoen egoera bereziki larria dela azaldu dute biek: "Lurralde okupatuetan emakumeak torturatuak izaten dira, bortxatuak, eta osasun zentroetara joateko beldur dira".

Zer mezu eraman nahi dute Saharako emakumeek EUCOCOr?

Uahba Abdelmaati: Saharako emakumeak auzi honetan duen papera nabarmendu nahi dugu; batez ere, emakumeak borrokaren funtsezko zutabe gisa duen eginkizuna eta urteetan zehar

nola garatu duen azpimarratu. Hasieran, gizonezkoak borroka armatura joan zirenean, emakumeak bakarrik geratu ziren kanpalekuetan, eta guztia haiekin hasi zen; haiek izan ziren dena antolatu zutenak, udalekuak, eskolak eta haurtzaindegia, udalak. Dena. Horrek egiten du garrantzitsu emakumearen rola gure kausan.

Raabub Mohamed: Herriaren nekearekin jotzen dute, eta emakume sahararrak 40 urte hauetan erakutsi duena bere erresistentzia da. Garaiezina da, sinesten duen kausa baten alde borrokatzen ari da. Gu borroka hasi zuten emakumeen belaunaldikoak gara, eta erbestean jaioetako gure seme-alabak ere borroka horretan hezten ditugu, nazioarteko justiziaren eta legezkotasunaren aldeko erresistentzia horretan. Ez gara geldituko, eta ez gara nekatuko.

44 urteren ondoren ez duzue amore eman.

R.M.: Hain sinetsita gaude borroka honekin, ezen berdin baitio zenbat denbora pasatzen den. Okupatzaile batek esaten zuen: "Pasatuko zaie, borroka hau hasi duten belaunaldiak hilko dira, eta geldituko da". Bistan denez, ustel atera zaie, belaunaldi berriek ere borrokarekin jarraitzen dutelako. Gezurrak mila urte egin ditzake korrika,



Uahba Abdelmaati eta Raabub Mohamed, Gasteizen bizi eta lan egiten duten saharar aktibistak. MIRIAN BITERI

baina egunen batean egiak harrapatuko du, eta egunen batean Saharak independentea izan beharko du. Sahararrok ez dugu erraza, Marokoko okupatzailearen aurka borrokatzeaz gainera, okupatzaile marokoarraren atzean dauden interes geopolitikoak, geostrategikoak eta ekonomikoak daudelako benetan. Europak, Mendebaldeak, herrialde garatuek interesatzen zaienean nazioarteko legezkotasuna eskatzen dute; eta interesatzen ez zaienean, Sahararen auzian bezala, alde batera uzten dituzte.

Diasporan ikasteko aukera izan duzue. Nolako esperientzia izan zen?

U.A.: Guk aukera izan genuen kanpamenduetatik ateratzeko, ikasteko, mundua ikusteko, unibertsitate-karrera bat egiteko eta lan egiteko. Nik, adibidez, Filologia Hispanikoa ikasi nuen Kuban. Hamalau urte eman genituen bertan. Raabubek Medikuntza egin zuen, eta orain, Gasteizen, Santiago ospitalean egiten du lan; beste askok farmazia egin zuten, ingeniariak, erizaintza, laborategiko teknikariak. Beste gatazka batzuk ikusi ditugu, beste kultura batzuk ezagutu ditugu, munduan zehar dauden emakumeen beste bizipen batzuk; horrek gure kausari

laguntzen dio, eta gizartean dugun papera indartzen du.

R.M.: 1979az geroztik hitzarmen bat sinatu zen Kubarekin, eta haurrak bidaltzen hasi ziren. Guk 11 eta 12 urte genituen, hurrenez hurren, eta hamahiru urtez egon ginen familiak ikusi gabe, familia errefuxiatuek ez zutelako nola ordaindu Kubako txartela Saharara. Gure familiak sakrifikatu egiten ziren ikasi eta geure bizitzaz egin genezan; Saharako gizartearentzat eta guraso sahararrentzat, emakumeentzat bereziki, garrantzitsuena euren seme-alaben heziketa baita. Kubara ikastera joan ginen emakume bakanetakoak ginen, bakarrak ez esatearren.

Ikasketak bukatu ondoren, zer aukera zenituzten?

R.M.: Orduan zeure buruari galdera egiten diozu: Kanpamenduetara noa, lanera, edo nire prestakuntzarekin jarraitzen dut eta kanpotik laguntzen dut? Nire kasuan, Portugalera joatea erabaki nuen, hizkuntza bat gehiago ikasteko, nire espezialitatea amaitzeko, ekonomikoki finkatzeko eta nire familia errefuxiatuari eta nire herriari laguntzeko. Kanpamenduetan, okupatutako eremuetan eta diasporan elkarren osagarri gara sahararrak.

Beituha Embarek Maichan elkartea sortu duzue. Zer lan egiten duzue?

R.M.: Kuban ikasi dugun emakume sahararrek osatzen dugu, mundu osokoak, eta elkarte humanitario, kultural eta sanitarioa da. Proiektu humanitarioak eta osasun-sentsibilizazioak garatzen ditugu kanpamentuetan, gehienbat emakumeari zuzendutakoak; emakumeenak diren patologiak artatzen ditugu.

Zeintzuk dira kanpamentuetan emakumeek pairatzen dituzten gaitz nagusiak?

R.M.: Oso sakon ukitzen gaituen gaia da bularreko minbizia. Kanpamentuetan diagnostiko eta tratamendua ez dagoenez, diagnostiko batera iristen direnean, Saharako emakumeak oso fase aurreratuan daude. Gure elkarte asko zentratu da emakumeari bularreko minbiziaren zantzuak zeintzuk diren erakusten, bularreko auto-azterketa bat nola egiten den irakasten. Diagnostikorako eta tratamendurako aukera ere eman nahi diegu, baina horrek oraindik baliabide asko eta azterketa asko eskatzen ditu.

Nolakoa da emakumeen osasun egoera Sahara okupatuan?

U. A.: Osasun arreta oso eskasa da. Aaiunen ez dago ospitalerik, okupatutako Saharako hiri nagusietan ez dago ospitalerik. Eta ospitaleren bat badago, sarritan, ez dute ezta botikarik ere, eta Marokora joan behar dira, hiri handietara. Berebiziko gabezia dago.

R.M.: Nire lagun batek dio Sahara okupatua munduko aire zabaleko presondegirik handiena dela, eta benetan hala da. Eta, noski, Saharako emakumeak dira egoera hori gehien pairatzen dutenak. Okupaziopean bizitzea izugarria da, emakumeak torturatuak izaten direlako, bortxatuak; emakumeak beldur dira osasun zentroetara joateko. Nire eginbeharra, medikua naizen aldetik, gaixoa artatzea da; nire gaixoez ez dute ez nazionalitatearik, ez sexurik, ez adinik. Hori ez da errespetatzen okupatutako guneetan, osasun zentroa polizia-estatu bat delako. Beraz, emakume bat manifestazio batean egon delako

eta zauria duelako joaten bada, zauria are handiagoa egiten ibiltzen dira, sendatu beharrean. Erresistentzian, modu baketsuan parte hartu badu, etengabe mehatxatua da; aktibista bazara, bortxatu, suntsitu eta lana kentzen dizute.

U.A.: Errefuxiatu guneetan behintzat segurtasun bat dute, baina okupatutako guneetan ez, eta, noski, okupatzaileari ez zaio interesatzen inolako mediku arretarik eskaintzea.

Isiltasun handia dago Sahara okupatuaren inguruan?

R.M.: Okupatutako eremuak setio-egoeran daude, eta zulo beltza dira kazetarientzat, ez dago informaziorik, errealitatea jakitea saihesten

"ESPAINIAN PUTZU BAT DAGO ETA ESKU BELTZ BAT SAKONEAN, ETA EZ DU UZTEN GATAZKA KONPONTZEN"

"OKUPATZAILEARI EZ ZAIO INTERESATZEN INOLAKO MEDIKU ARRETARIK ESKAINTZEA"

"HEMEN ERE JENDEAREN MESPRETXUA IKUSTEN DUZU, 'MELFA' ERAMATEAGATIK SOILIK"

delako. Gainera, nazioarteko komunitatearen konplizitatea dago, eta errealitate hori estaltzen saiatzen dira.

U.A.: Ezikusiarena egiten dute, ez zaielako interesatzen gaiaz hitz egitea. Ez zaio interesatzen Espainiako Estatuari, ez Frantziari ez Amerikako Estatu Batuei, interes ekonomikoek dena estaltzen dutelako. Eta interes ekonomikoak gauza guztien gainetik jartzen direnean, bada, oinarritzko giza eskubideak albo batera geratzen dira.



Indarkeria desberdinak jasaten dituzue, emakumeak izateagatik, sahararrak izateagatik...

U.A. Hemen ere jendearen aurreiritziak eta estigmatizazioa sufritzen ditugu. Jendearen mespretxua ikusten dugu gure jantziak (*melfa*) eramateagatik bakarrik. Berdin dio medikua zaren, literatoa zaren edo farmazialaria zaren. Hori guztia bigarren lekuan geratzen da. Nola janzen zaren edo nola hitz egiten duzun, hori da kontuan hartzen dutena.

R. M.: Baina estigma horiei aurre egiteko ere prestatu gara. Gu gerran jaio ginen. Maroko sartu eta Espainia joan zenean, Marokoko okupatzaileek sahararren bonbardaketa eta sarraskia egin zituztenean jaioberriak ginen. Gure ibilbideak emakume gogorak egin gaitu, eta ezerk eta inork ez digu minik egiten. Nik Uahba ikusten dut, eta bera emakume sahararra da, *melfaz* jantzita, eta dugun literatorik onenetakoa da, hainbat hizkuntza hitz egiten ditu... Nola mespretxatu dezake inork? Borroka bat bizi izan duen emakumea da, hainbat hizkuntza hitz egiten duen emakumea, unibertsitateko ikasketak dituen emakumea eta mundua beste begi batzuekin ikusten duen emakumea.

Emakumeek duten papera aitortzen da saharar komunitatean?

R.M.: Emakumeok asko lortu dugu, baina adi, asko falta zaigu oraindik lortzeko. Inguratzen gaituen munduarekin alderatuta, arabiar munduko beste emakumeen egoerarekin alderatuta, oso urrun sentitzen gara.

U.A.: Urtez urte askeago sentitzen gara, gizartean ikuspegi irekiagoa dagoelako emakumearen paperaren inguruan, ez hain murriztailea. Gu, behintzat, saharar emakumeok ez gara zapalduta sentitzen.

Zer espero duzue EUCOCO konferentziatik?

R.M. Gu ez gara nekatzen, eta Saharako herriaren lagun guztiei eskatzen diegu ez daitezela neka. EUCOCO gure errealtatearen berri emateko geldialdi bat da. Une honetan, gehiago elikatu behar dugu Saharako herriarekiko elkartasun

mugimendu horren papera, une garrantzitsua da, eta elkartasun mugimendu horretara gero eta jende gehiago batzea nahi dugu. Herri nekazina gara, gure eskubideak errespetatzea nahi dugu, ez dugu beste munduko ezer eskatzen, gure lurraldearen gainean bizi nahi dugu eta mundu ero honetako beste herrialde bat izan nahi dugu. Horregatik da garrantzitsua Saharako herriarekiko elkartasun mugimendua ere ez nekatzea.

Saharako herriak duen gizarte zibilaren babesari zerbait falta zaio?

R.M.: Gizarte zibil hori bere gobernuetan eragiteko gai izatea. Ez dit balio esateak gizarte zibilaren gehiengoaren babesa dugula, erabaki politikoetan islatzen ez bada. Gure kasuan, behar dena babes politikoa da. Gatazkari irtenbide politikoa ematen badiogu, laguntza ekonomikoa, humanitarioa eta babes morala aurreztu ahal ditugu. Gizarte zibilaren babesa erabaki politikoei eta instituzionalei artikulatzea nahi dut; niri ez dit balio herri gisa laguntzeak, gero, eragin dezakedan tokietan, isildu egiten banaiz. Hori onartzea, neurri handi batean, gobernuekiko eta egungo sistemarekiko konplizitatea da.

PSOEk eta Unidas Podemosen osatuko duten balizko gobernu berriarekin zer itxaropen duzue?

R.M.: Ez da ezinezkoa baina gobernura igotzen denak zerbait aldatzea oso zaila da. Badago monarkia espainiar bat eta badago estatu espainiar bat, eta norbait Sahararen alde zerbait egiteko ideiarekin edo asmoarekin etortzen bada, saihestuko dute. Espainian putzu bat dago, eta Espainiako politikari asko boterera iritsi eta putzura begiratzen dutenean, esku beltz batek ezetz esaten die. Nire ustez, putzu horren sakonean dagoen esku beltz horrek ez du uzten Saharako auzia konpontzen, gatazka guztien atzean interes ekonomikoa dagoelako eta gurea ez delako salbuespena. Saharako herriaren aldeko lagunik onenak etorri dira, eta gora iristen direnean, esku beltza ikusten dute behean, putzuan, ezetz esanez. ■■■



'Framing'-a



OIER LLINAS

KAZETARIA

Kazetaritzaren urrezko aroa", esan dit lagun batek ironiaz beteta. Egia da, azken urte hauetan komunikabideak, salbuespenak salbuespen, gero eta kazetaritza kaxkarrago bat egiten ari direla. Pixkanaka, jendeak hedabideetan duen konfiantza txikitzen doa. Arrazoi ugari daude gaurko kazetaritzak dituen arazoak azaltzeko: *fake news* deitutakoak, mezuen polarizazioa, lan baldintza prekarioak... liburu oso bat idatzi daiteke gai honen inguruan. Eta, kazetaritzak hil ala biziko ebakuntza baten zain jarraitzen duen bitartean, komunikazioak gero eta indar gehiago dauka gure pentsamoldean. Zehazki, komunikazioaren adar teoriko batek: *framing*-ak.

Pasa den mendearen 60. hamarkadan sortutako teoria soziologiko bat da, gerora, hedabideei aplikatu zitzaiena. Berez, *framing* deitzen diogu berri bat kontatzeko aukeratzen den ikuspuntuari.

Gertatutako zerbait, errealitate bat, nola kontatzen den, hain zuzen ere. Horrela azaldu daiteke zergatik albisteak ezin dirn inoiz %100 objektiboak izan. Hala ere, *framing* honen urrezko garaian bizi garela uste dut ez kazetaritzan duen pisuagatik, politikariek egiten duten erabileragatik baizik.

Aurreko egunean telebistan ikusi nuen Bolivian gertatutakoa estatu kolpe bat ote zen eztabaidatzen ari zirela. Kontuan edukita egon diren hildakoak eta militarrek jokatu duten papera, nahiko argi esan daiteke estatu kolpe bat dela. Hala ere, politikari batzuek, tartean Jose Manuel Garcia Margallo Espainiako Kanpo Harremanetarako ministro ohiak, sutsuki defendatzen zuten ez dela horrelakorik izan. Hori bai, modu suhar berean esango dute Katalunian 2017an gertatutakoa estatu kolpe bat izan zela. Ildo berean, Altsasuko gazteek kartzelan jarraitzen dute, baina euren baina okerragoa diren hamaika kasutan ibilitakoak libre daude.

Ez da soilik manipulazioa, *framing*-a baizik. Errealitatea kontatzeko, ulertzeko eta partekatzeko modu bat. Batez ere, herritar askok sinistuko duten ikuspuntu bat. Nola ihes egin emandako marko hauetatik eta norberarena eraiki? Erraz: irakurri, entzun eta ikusi ahal bezain beste komunikabide, eta gero zure *framing* propioa sortu. Hona hemen hedabideak erabiltzeko funtsezko araua: ez jarraitu bakarrik bat. Azken finean, kazetaritza hilzorian egon daiteke, baina oraindik beharrezkoa da. ■■■

**NOLA IHES EGIN
ERAIKITAKO MARKO
HAUETATIK ETA
NORBERARENA
ERAIKI?**

BIRZIKLAPENEAN JAIOLAK GARA



HOBETO
EGINGO
DUGU



SAREAN

@ESTITXUUGARTE


#ZaldiUrdina

P principal Antzokia lepo bete zuten asteartean *Zaldi Urdina* antzezlanak ikustera joan ziren ehunka lagunek. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariek idatzitako antzezlanak Artedrama, Axut! eta Dejabu konpainiek prestatu dute, eta zuzendaritzaz Ximun Fuchs arduratu da. Antzezleak Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcala, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate eta Olatz Beobide dira. Heroinarene fenomenoak eta euskal gatazkaren auzi desberdinak lantzen ditu antzezlanak, eta urriaren 11n estreinatu zutenetik arrakasta handia izaten ari da. ■■■



ANE LARRINAGA
@ane_larrinaga

Zaldi urdina Gasteizen ikusi berri. Guztiz gomendagarria.
@ielortza @uiturriaga @HutsTeatroa
@ArteDrama izugarria zuen lana. #ZaldiUrdina



ITZIAR OSTOLAZA
@itziar_ostolaza

Oholtza gaineko magia geure azalean sentitu dugu. Mila esker herri honen kontakizunaren argi-ilunak plazaratzeagatik. Eta zorionak euskarazko antzerkiak aretoak bete ditzakeenaren adibide bizi izateagatik.



ERRIKARTA RIKI
@ErrikartaRiki

Principal Antzokian ikusi ondoren, erabat gomendagarria Zaldi Urdina lana: "...gazteria eta rock musika...hiesa eta heriotza... gatazka politikoa eta botereen esku beltza... Auzia da droga kalean dela, hemen eta..."



MERTXE GUILLEN
@mervitoria1

#Zaldiurdina ikusi berri Gasteizen. Zorionak talde osoari lan bikainagatik!
Birik jarraitzen du, ez galdu ikusteko aukera!



JULEN APELLA
@ApellaJ

"Eta nik infinitoa izan nahi nuen".
Zauriak partekatuz ere egiten da herri bat. Ze ona eta ze beharrezkoa #ZaldiUrdina. Minetik sortutako kronika txundigarri bat. Zorionak lan talde osoari!

AZAROAK 25
Indarkeria matxistaren aurkako Nazioarteko eguna
Día Internacional contra la violencia machista

**AKTIBISMOA
DESPATRIARKALIZATUZ**
No nos salves la vida
Revisate y ¡ACTÚA!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

MANU ROBLES ARANGIZ
FUNDADORA

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

VITORIA-GASTEIZ

CARNICERIA MARQUEZ - Adriano VI. 11

CARNICERIA AIZPEOLEA - Mdo. de la Florida, 19 pto. 2-3

CARNICERIA GENARO - Mdo. Arana - Plaza de Aranzabela

CARNICERIA APELLANIZ - Portal de Villareal, 2

CARNICERIA ACEBO - Mdo. de Abastos, Plaza Santa Barbara



"Etorkizuneko Arabarako" bost proiektu izar nabarmendu ditu Aldundiak, tartean tranbia, autobus elektrikoa eta Saratxoko errepidea. AFA

518,3 milioi euroko kontuak

2020. urterako aurrekontu "sozial eta inbertitzailea" aurkeztu du Aldundiak, diputatu nagusiaren hitzetan. EH Bilduk, berriz, kezka agertu du "ia inbertsio guztiak" Gasteizen egingo direlako.

MIKEL BURUAGA GASTEIZ

Aldundiak prest ditu aurrekontuak. Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusiak eta Itziar Gonzalo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak joan den astean aurkeztu dituzte 2020. urterako aurrekontuaren nondik norakoak. Gonzalezen arabera, foru gobernuak aurkeztu dituen

kontuek "lurraldearen etorkizuna" ziurtatuko dute, datozen urteotako egoera ekonomikoa "edozein izanda ere".

Partida garrantzitsuenei dagokienez, besteak beste, 4,8 milioi euro inbertituko dira tranbia hiriburutik hedatzeko, 9 milioi autobus elektriko adimentsuan eta haren gordeleketan, 18,6 milioi

Saratxoko errepidean, 8,2 milioi Gasteizko auditorioan eta beste 7 milioi Mendizorrotza eraberritzeko. Bost egitasmo horiek legegaldi honetako "etorkizuneko Arabarako proiektu izarretako batzuk" direla adierazi du Gonzalezek.

Aurrekontu proiektuak 231,5 milioi euroko erreserba egiten du inbertsioetarako. Zehazki, 103 milioi eurora iritsiko dira 2020rako inbertsioak. Zenbateko horri beste 128,5 milioi gehitu behar zaizkio, legegaldi guztirako konpromiso-kredituen bidez jasota geratuko direnak.

Kohesio sozialerako apustuari dagokionez, gizarte politikan 250 milioi euro baino gehiago erabiltzeko asmoa dutela azaldu du Gonzalezek: "Batez beste 765 euro zuzenduko ditugu Arabako biztanle bakoitzeko".

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 216 milioi aurrekontua izango du, besteak beste, mendekotasuna duten adinekoengan arreta hobetzeko (84 milioi euro), desgaituei arreta eskaintzeko (35,8 milioi euro) edota zaintzaileen-etzako (561.000 euro) zein adingabeen eta familiarako (25,5 milioi) partiden erreserba egiteko.

Kultura, gazteria, euskara edo berdintasunari buruzko kontzientziazio politikak ere kohesio sozialari begirako elementuak direla azpimarratu du diputatu nagusiak.

Bestalde, 2020rako %2,76 haziko da toki finantziarioa eta, guztira, 275,6 milioi gorde dira Arabako kuadrillentzat, udalentsat eta kontzejuentzat. "Arabako toki erakundeentzat inoizko finantziatorik handiena" dela ziurtatu du Gonzalezek, pertsonak

EGOERA EKONOMIKOA "EDOZEIN IZANDA ERE" KONTUEK ETORKIZUNA ZIURTATZEN DUTELA DIO FORU ALDUNDIAK

"nonahi bizi direla ere" zaindu nahi dituztela erantsita.

Azkenik, diputatu nagusiak nabarmendu du inbertsioak eta politika publikoak "zorrak egin gabe" burutuko direla eta "murriztu ere" egingo dituztela. "Zalantzarik gabe, premiazko ahalegina izan da lurralde eragile izan nahi badugu etorkizunean", bukatu du Gonzalezek.

"la guztia Gasteizen"

EH Bilduk ez ditu begi onez hartu foru gobernuak mahai gainean

jarritako zenbakiak. Alderdi aber-tzaleko batzarkide Kike Fernandez de Pinedo kezkatuta agertu da "ia inbertsio guztiak Gasteizen" egi-ten direlako, "lurraldeen arteko desoreka areagotuz". Fernandez de Pinedoren arabera, herrien despopulazioari aurre egiteko, "aurrekontuaren %0,2" baino ez da erabili.

Inbertsioetan "zazpi proiektu baino ez" dituela aipatu nabarmendu du Fernandez de Pinedok, eta "horietako sei Gasteizen" di-rela leporatu dio Ramiro Gonzalezi. Gizarte politikari buruz egin-dako azalpenean, proiekturik ez duela zehaztu kritikatu dio. Gai-nera, deitoratu du Foru Gobernuak EH Bilduko batzarkide taldea kontuan hartu ez izana. "Proiek-tua mahai gainean dugunean, iritzia zehaztuko dugu", aurrera-tu du.

SARETU, ELKARTU, SALATU eta BORROKATU **Lantokietan AUTODEFENTSA FEMINISTA**



KONTZENTRAZIOA

12:00ETAN

LAN IKUSKARITZAN

ALAVA JENERALAREN KALEA, 10

GASTEIZ

25
Azaroak

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
KONTRAKO
NAZIOARTEKO EGUNA

LAB

ESANAK



MIREN URRESTI AZPIRI

AIARALDEKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Iturria: Aiaraldea.eus

"Eskualdean oso emakume elkarte indartsuak ditugu, ibilbide luzekoak"



ITZIAR DE ALAVA

LANTZIEGOKO ALKATEA

Iturria: Radio Rioja Alavesa

"Ur biltegi berria eraikitzeko obrari esker, orain dugun bolumena bikoiztuko da"



KARMELE JAIIO

IDAZLEA

Iturria: Berria

"Batzuetan uste dugu leku neutral batetik ari garela idazten, eta hori ez da horrela"

ZENBAKITAN

Basurdeak

Arabako basurdeen errolda jaso du Aldundiak 2018-2019 Basurdeen Kudeaketa Planaren barruan. Horren arabera, lurraldean, 7.200 eta 8.100 basurde artean dago; Badaia mendilerroa, Aramaio eta Lautada-Iparraldea dira dentsitate handiena dituzten

zonaldeak. Txosten horretan jaso dutenez, 2017-2018 kanpainen, guztira, 1.626 ehizaldi antolatu dituzte Araban, eta 3.353 basurde hil dituzte horietan, hortaz ehizaldien eraginkortasun maila %34koa dela ondorioztatu dute. Errepideetan eragiten dituzten trafikoko istripuak nabarmen igo dira; izan ere, 2018an, istripuen %41,67 eragin zituzten.

8.100

597

Hondakinak

Arabako Errioxako biztanle bakoitzak 597 kilo hondakin sortu zituen 2018. urtean, eta soilik %23,9 birziklatu zuen. Hala, hondakinen %76,09 (454 kilo) eskualdeko edukiontzi grisetan jaso dute, eta horrenbestez ezingo dira birziklatu. Gainera, Arabako Errioxa da herrialdean ontzi gutxien birziklatzen duen eskualdea (%18,8). Aldiz, beira gehien birziklatzen duen kuadrilla da (%8,21). Europako birziklatze helburuetatik oso urrun dago oraindik eskualdea.

11

Egunak

Gasteizko Michelinen obra publikoetako, ingeniariaritzaren lan handietako eta meatzaritzako ibilgailuetarako gurpil erraldoiak dira lantegiaren ekoizpenik garrantzitsuenak. Zuzendaritzaren arabera, horien eskaria murriztu da aurreko urtean ere apalduko da. Horregatik, erabaki du Eguberrietako jaiegune bost eguneko etenaldia batzea, gurpil erraldoien ekoizpen lineetan. Langileen batzordeak susmoa du neurriak zerikusia duela hitzarmen berriaren negoziazioarekin.

Jatorrizko izena berreskuratu du Ega ibaiak Antoñanan

Angel Aldak egindako lanari esker, iragan astean, azkenik, Antoñanatik igarotzen den ibaiak bere jatorrizko izena berreskuratu du. Hala, Berron deitura jasotzen zuen kartela kendu eta Ega ibaiaren seinalea jarri berri dute. Hainbat ikerketa egin ditu Aldak azken urteetan gaiaren inguruan, eta berretsia ahal izan du Berron izena okerreko erabilera dela.



Antoñanan, Berron ibaiaren kartela kendu eta Ega ibaiarena jarri dute. ANGEL ALDA

Elkarbizitza eta Aniztasunaren I. Plana aurkeztu du Agurainek

Aguraingo Udalak Elkarbizitza eta Aniztasunaren I. Plana aurkeztu du, jatorri desberdineko bizilagunen arteko elkarbizitza sustatzeko asmoz. Inmigrazioaren Euskal Behatokiak udalerriko errealitatea jasoaz egindako txostena oinarri hartu dute plana martxan jartzeko. Txostenaren arabera, Aguraingo biztanleriaren %13,4 migranteak dira. 2022. urtera arte hainbat neurri jaso ditu Udalak.

Zubi berri bat eraikitzeko lehen urratsa, Argantzonen

130.000 euroan lizitatu du Argantzongo Udalak Zadorra ibaia gurutzatzeko zubi berriaren eraikuntza proiektua. Modu horretan, XIII. mendeko zubiarekin batera, edozein motako ibilgailuen joan-etorria ahalbidetuko duen azpiegitura berria izango dute Argantzonen eta Tuyo lotzeko. Ikusteko dago, obra egiteko finantzazioa nondik etorriko den.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA GOIERRI AZAROAK 28 OSTEGUNA 17:30 ARRASATE AZAROAK 30 LARUNBATA 10:30 ORONA IDEO ABENDUAK 14 LARUNBATA 10:30 BILBO URTARRILAK 15 ASTEAZKENA 18:00 HIRIETAN AURKEZPENAK: DONOSTIA ABENDUAK 11 18:00 Kursaal Jauregia EKINTZAILTZA BIDASOA AZAROAK 23 LARUNBATA 11:00 OÑATI AZAROAK 30 LARUNBATA 11:00 BILBO ABENDUAK 12 OSTEGUNA 18:00	ENPRESA KUDEAKETA BIDASOA AZAROAK 23 LARUNBATA 11:00 OÑATI AZAROAK 30 LARUNBATA 11:00 BILBO ABENDUAK 14 LARUNBATA 11:00 HEZKUNTZA ESKORIATZA ABENDUAK 14 LARUNBATA 11:00 BILBO OTSAILAK 8 LARUNBATA 11:00 KOMUNIKAZIOA ARETXABAETA ABENDUAK 14 LARUNBATA 11:00 BILBO OTSAILAK 8 LARUNBATA 11:00 HUMANITATEAK BILBO OTSAILAK 8 LARUNBATA 11:00 GASTRONOMIA — Basque Culinary Center DONOSTIA ABENDUAK 14 LARUNBATA 10:30
---	---

Etorriko zarela jakinarazil
www.mondragon.edu/prest

Populismoa ez elikatzea xede

Kulturarteko 72 bazkari egin dituzte igandean, Bizilagunak ekimenaren barruan. Kultura-aniztasunari ateak ireki eta etorkinekiko mespretxua eragiten duten mezu populistei ateak itxi nahi izan dizkiete horren bidez.

JUANMA GALLEGO ARABA

Mila lagun baino gehiago elkartu dira joan den igandean Euskal Herri osoan egindako kulturarteko bazkarietan. Arabaren kasuan, 1.082 pertsona elkartu dira, 72 bazkarietan. Modu horretan, etxe eta txoko asko zubiak eraikitzeko gune bilakatu ziren. Aurten Lautadako, Aiaraldeko, Mendialdeko eta Añanako kuadrilletako hainbat herritan izan dira hitzorduak, eta baita Gasteizen ere. Parte-hartzaileen jatorriari dagokionez, mundu zabala ondo ordezkaturik egon zen: 48 herrialdeetatik etorritako lagunak bertaratu ziren otorduetara.

Zurumurraren aurkako estrategiaren barruan antolatutako ekimena da Bizilagunak, Arabako Foru Aldundiak eta CEAR-Euskadik antolatuta. Errefuxiatuen aldeko erakundeak azpimarratu duenez, "ekimena oso intimoa den zerbaiten ateak irekitzeko modu bat da; alegia, gure etxeak irekitzeko modu bat". Horregatik, bazkari hauek "herritarren keinu kolektibo" gisa definitu dituzte.

Atearen metafora baliatu dute ekimenaren filosofia zabaltzeko. Hala, kultura-aniztasunari ateak ireki eta, modu beran, "migratzaileekiko eta errefuxiatuekiko mespretxua eragiten duten mezu populistei" ateak itxi nahi



Araba osoko etxe eta txokoetan egin dituzte bazkariak. CEAR



Kultura-aniztasunerako espazioak sortzea da ekimenaren helburuetako bat. CEAR

izan dietela azaldu dute. Araban jarraian egiten duten laugarren urtea izanik ere, testuingurua kontuan hartuta, aurtengo hitzordua bereziki garrantzitsua izan dela iradoki du Virginia Cid CEAR-Euskadiko kideak: "Gezurrezko zurumurru arrazistak, diskurtso politiko populistak eta xenofobiaz betetako iritzi publikoa ari gara bizitzen une hauetan",

nabarmendu du. Honen aurrean, "kultura-aniztasunerako espazioak" sortzeko beharra azpimarratu du.

Bazkarietan parte hartu duten familia guztiei eskerrak emateko, ekimenaren arduradunek elkarretaratze bat antolatu dute azaroaren 30ean, EHUKo Gasteizko Letren Fakultatean. ■

Añana, bertako zaporeez blai

Añanako Kuadrillak X. Jardunaldi Gastronomikoak egingo ditu azaroaren 23an eta 24an, bertako produktuak nabarmentzeko eta eskualdeko ekoizleek egiten duten lana ezagutarazteko helburuarekin.

ERREDAKZIOA AÑANA

Añanako produktuak eta bertako jatetxeetako proposamenak ezagutzeko, eskualdeko produktuekin egindako menu eta pintxo bereziak, tailerrak, bisitaldiak eta jarduera herrikoia antolatu dituzte asteburu honetarako *Zaporeez blaitu* lelopeko X. Jardunaldi Gastronomikoak egitasmoaren barruan.

Aurtengo edizioan, menu bereziak eskainiko dituzten jatetxeak honako hauek izango dira: Arasur (Ribabellosa), Badaia Taberna (Mandaita), El Viso (Estavillo), La Kabaña

(Espejo), Margara (Langraiz Oka), Merendero Rosa (Langraiz Oka) eta Palacio de Añana (Gesaltza Añana). Horrez gain, pintxo bereziak eskainiko dituztenak ere badira: Angostoko kanpina (Villanañe), Txoriarte Coto el Castillo (Santa Cruz del Fierro), Kuartango Sagardotegia (Kuartango), Meson Valderejo (Lalastra) eta Bovedako gizarte etxea.

Bertako produktuak, erdigunera

Egitarau oparoa ere prestatu dute: azaroaren 23an, larunbata, Sobrongo Uraren Museoa, Nagore Lazaro

nutrizionistak eskualdeko produktuetan oinarritutako elikadura osasuntsua ardatz izango duen lantegi familiarra gidatuko du. Egun berean, bisita gidatua egingo dute Ekotarrikora (Kuartango). Tokiko lehengaiak, produktu ekologikoak eta gehigarriak eta glutenik gabekoak erabiliz artisauek moduan platerak prestatzen dituen kontserba-kooperatiba da Ekotarriko. Euskaber Oraa (Espejo) arrautzak ekoizten dituen baserria ezagutzeko aukera ere egongo da, ipuin kontalari baten eskutik.

Igandean, irteera mikologiko gidatua egingo dute Langraiz Okatik, perretxikoak eta onddoak ezagutzen ikasteko, espezie jangarriak bereizteko eta nola aurkitu eta nola bildu ikasteko. Horrekin batera, zenbait errezeta ere prestatuko dituzte. Azkenik, jardunaldiak ixteko, bisita gidatua egingo dute Gatz Haranera eta Añanako gatz mota desberdinak dastatuko dira.

Aste bukaerako hitzordua aukera aparta izango da eskualdera hurbildu eta, bertako produktu eta jatetxeez ez ezik, ondare eta naturaz gozatzeko; tartean, Santa Katalinako lorategi botanikoa, Iruña Veleia herri erromatarra, Gatz Harana, Varonatarren Dorretxea edo Valderejoko parke naturala. edo Caicedo Yusoko aintzira. ■



Bertako produktuak dira Añanako X. Jardunaldi Gastronomikoen protagonista. AFA

MBW

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

90. hamarkadan soul eta, oro har, erritmo beltzekin zerikusia zuen musikaren erreferente izan ziren Gasteizen antolatzen ziren jaialdiak. Gerri herdoilduak edukitzeagatik ezagun, fenomeno "paranormaltzat" har genezake AEBetan sortutako musika afroamerikar hark lortutakoa: euskaldunak pub-barraren babesetik aldendu eta pistako dantzari amorratu bilakatzea. Erru handia izan zuen The Allnighters banda gasteiztarrek eta bere inguruan sortutako giroak, euren gitarren *rhythm and blues* (R&B) deskargek gau osoz dantzan irautera gonbidatzen baitzuten.

Garai hartan hartu zuen indarra soul kulturak Euskal Herrian, eta egun ugariak dira musika beltzaren inguruko jaialdiak: Soul 4 Real (Bilbo), Mojo Workin' (Donostia), Beltza Weekend (Iruñea)... Gasteizek ere badu musika beltzean oinarritutako jaialdia, izan ere, 3. edizioa beteko du Midnight Boogie Weekendek, Helldorado elkarteak Vital Fundazioarekin elkarlanean antolatutako jaialdiak. Aurtengo edizioa gainean dugu eta azaroaren 21etik 23ra, kontzertuak egoteaz gain, soul kulturaren inguruan antolatutako hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da.

Gozagarri gisa, hilaren 21ean, 20:00etan, 2014an James Brownen bizitzaren inguruan



ELI 'PAPERBOY' REED

Tate Taylorrek zuzendutako *Get on up* filma eskainiko dute Dendarabako Luis de Ajuria aretoan.

Ostiralean, hilaren 22an, gasteiztarron artean ikusmin handiena sortu duen kontzertua dago Helldoradon. Izan ere, Eli *Paperboy* Reed-en agerraldia 21:30erako dago iragarrita. Bostongo azal-zuriko artista gazteak 2009ko ARFn Gasteiz osoa dantzan erotuta jartzeko gai izan zen. Orduan *Roll with you* bigarren disko ederra defendatzen lortutakoa, aurren *99 Cent Dreams* berriarekin errepikatzen

GASTEIZEK ERE BADU MUSIKA BELTZEAN OINARRITUTAKO JAIALDIA: MIDNIGHT BOOGIE WEEKEND

saiatuko da. 22ko jaiak luze iraungo du, Reed amaitu bezain laster hasiko baitira gonbidatutako lau dj-en saioak; horien artean, Alfie Linney ingelesa da ospetsuena. Laurek, garaiko binilo originalaz armaturik, guztia emango dute zapaten zolak higtu arte.

Azaroaren 23ko jardunaldiari Jaime Bajoren *El Hechizo del Groove* liburuaren aurkezpenarekin, Jaume Mira margolariaren artelanen erakusketarekin eta Creative Soul kolektiboaren haurrei zuzendutako tailerrekin emango zaio hasiera, ondoren Helldoradora itzultzeko.

Aurreko eguneko lau dj-ekin biribildutako emanaldi bikoitza izango da azken gauekoa. Hasteko, Elxeko Pasapogas Hammond Quartet protagonista, aurkezpen gutuna era instrumentalean jotako modern jazz, boogaloo-a eta soula.

Amaitzeko, antolatzaileen apusturik sendoena, Zoot Mooney teklista beteteranoa. Bornemouthko mitoa jazz prestakuntza duen musikaria da; 60ko hamarkadaren hasieran jada R&B egiten ari zen Eric Burdon, Steve Winwood edota Eric Claptonen aldamenean. Behin bakarrik jo du estatuan orain dela 15 urte.

Begirada eman egitarauari eta soulez beteriko asteburu ezin hobea igaro Midnight Boogie Weekend. ■

Ziberasteak!

APROBETXATU PROMOZIO HAUEK ABENDUAREN 9ra ARTE

.eus domeinua + SSL ziurtagiria
10,00 €

eus banatzaile ofiziala

domeinua
% 50-eko beherapena

Hosting plan bat kontratatuz
SSL ZIURTAGIRIA DOHAINIK

SSL ziurtagiria
% 50-eko beherapena

10 orduko web zerbitzua
(%25-eko BEHERAPENA)

domeinua + ostatatze zerbitzua +
SSL ziurtagiria + *landing page*
lehen 355 € **ORAIN 250 €**

GAUEKO
Enpresaren sistema informatikoak
kontrolatzeko erreminta.
Denbora errealeko kontrola eta
mugikorrean jakinarazpenak.
(%30-eko BEHERAPENA)

domeinua + ostatatze zerbitzua +
SSL ziurtagiria + webgune bat
lehen 1.105 € **ORAIN 775 €**

Eskaintza gehiago 2 produktu baino gehiagoko paketetan
**DOMEINUAK · SSL · HOSTING ·
POSTA ELEKTRONIKOAK · WEB ZERBITZUA**

ETE^eKIN
INFORMATIKA INTEGRALA

by **oreka i.t.**
corporate balance

Kontsultatu promozioaren
baldintzak hemen
eteekin.eus

OREKA INFORMATION TECHNOLOGIES
Vitoria-Gasteiz (Araba) · 945 067 219
orekait@eteekin.eus · www.eteekin.eus



zerbitzua
cubkaraz



Algoritmoak aukeratuak?

TEKNOLOGIA



ARRATE SANCHEZ

OREKA IT

Lanpostu bat lortzeko prozesuan lan-elkarrizketa etaparik garrantzitsua da. Lanpostu baten bila egon den edonork daki elkarrizketa horren arabera dena aldatu daitekeela, lanpostutik gertuago egon zaitezke edo betirako galdu zure aukera guztiak. Enpresak, are gehiago tamaina handikoak eta multinazionalak, etengabe daude langile berriak bilatzen, hautagaiekin behin eta berriro antzeko lan-elkarrizketak egiten. Horregatik, zeregin hau optimizatzea beste negozio-prozesuak optimizatzea bezain garrantzitsua eta interesgarria da. Nola egin daiteke? Adimen-artifizialean dago erantzuna.

Merkaturatzen hasi dira langile berrien aukeraketa prozesuetan aplikatu daitezkeen adimen-artifizialean oinarritutako erremintak. Prozesua hurrengo izango litzateke: langile berriak aukeratzeko arduradunak (gaur egun oraindik ere gizaki bat izan ohi dena) galdera sorta bat diseinatzeko, erremintari ematen dio, eta hautagaiak heldu ahala galderak bidaltzen zaizkie. Hauek grabazio bat egiten dute erantzunekin, eta algoritmoak



UNSPLASH

aldagai ezberdinak hartuko ditu kontutan aukeraketa egiteko. Aldagai hauen artean keinuak, ahoskera eta erantzunen "zuzentasuna" daude, beste askoren artean. Zuzentasun bezala hautagaiaren ezaugarriek eta lanpostuaren errekerimenduek bat egiten dutela ulertu behar dugu.

ADIMEN-ARTIFIZIALA OINARRI DUTEN TRESNAK ERABILTZEN HASI DIRA HAUTAKETA PROZESUETAN

Metodologia honek abantaila asko ditu, baita kritikagarriak izan daitezkeen beste aspektu asko ere. Argi dago denbora asko aurrezten dela hautatzailea eta hautagaia fisikoki elkartu behar ez direnean, bakoitzak erabakitzen duen momentuan egin dezake eta. Baina bat-batekotasuna eta urduritasunari aurre egiteko gaitasuna baloratzeko aukera galtzen da? Segur aski baietz. Faktore askok baldintzatu dezakete hautatzailearen lana. Jarrera edo aurreiritziak adibidez. Hautagaien artean parekotasun handiagoa lortzeko aukera dago, algoritmoa ez baita nekatuta edo kopetarraino egongo. Baina egia da elkarrizketa batek duen gizatasuna edo ulermen gaitasuna galtzen dela, eta ez beti hoberako.

Beraz, eboluzioa edo inboluzioa? Ez bata, ez bestea. Hautagai kantitate galanta duten prozesuetan, adibidez, egokia izan daiteke horrelako soluzioak aplikatzea lehenengo behaketa egiteko orduan, baina hautagaia egoki ezagutzeko (etorkizunean langilea izango dena), beharrezkoa da, edo behitatz gomentagarria, aurrez aurreko giza-topaketa bat izatea. ■

oreka i.t.
corporate balance

INFORMATIKA ZERBITZUAK ETA SAP NEGOTZIO-SOLUZIOAK

www.orekait.com | orekait@orekait.com

Hitz egin dezagun!
945 067 219



APROBETXATU
AUKERA HAU!

BLACK
FRIDAY

AZAROAREN 12 TIK 30 ERA ARTE



ZATOK
EUSKALTELERA



200
MEGA



20GB
DEI
MUGAGABEAK



AISIA
TBa
ANDROID 4K

14'9€
/hil
6 hilabetez

www.euskaltel.eus | Dendak | 900 840 242



euskaltel

Zatok Euskaltelera 2019/11/30 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau.
Irakurpen-konpromisoa: 12 hilabete besterik ez. Gero, prezioa 63 €/hil izango da. Prezioek sartuta dute
BEZa (2019/12/22tik aurrera egongo dira indarrean). Informazio gehiago, hemen: www.euskaltel.eus

Babesle teknologikoa:



Araban da, baina... zer herritan dago horma-irudi hau?

IKA EUSKALTEGIA



ALEAren irakurle guztioi aukera eman nahi dizuegu urtero euskaltegian antolatzen dugun 'Araban da, bai, baina...' lehiaketan parte hartzeko. Datozen asteotan argazki zein galdera bana izango duzue astero ikusgai ALEA aldizkarian. Animatu eta parte hartu, ea erantzun zuzena ematea lortzen duzuen!

Hiru astean behin opari bat zozketatuko dugu asmatzen duzuenon artean, eta, horretaz gain, irabazleok Alea taldea osatuko duzue abenduaren 19an egingo dugun euskaltegien arteko finalean. ■■■



Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, eman erantzuna gure webgunean:

alea.eus/bereziak/ika31

July 17

Euskararen Agenda

July 17

Astebururako planak, albiste interesgarriak, umeentzako hitzorduak, musika, antzerkia, hitzaldiak...

Bilatu 'Euskararen Agenda' kanala **TELEGRAM** bidez

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak

Irabazleak:

Gorbeia zinemarako sarrera: Iurgi Mtz. de Aramaiona.

'Izan zaitez neu' kontzerturako sarrerak: Rakel Jausoro Saez de Camara eta Ane Aristi.



Artepanen gosaria Bi lagunentzat

ALEAk bi lagunentzako gosaria zozkatuko du, Gasteizko Artepan okindegietako batean ahogozatzeko. Eman izena azaroaren 27a baino lehen. Zuzenean jakinaraziko diogu irabazleari.




Askabide Klinikan 6D ekografia

Arabako ALEAk, Gasteizko Askabide Klinikaren eskutik, 6D ekografia-saio bat zozkatuko du; ekaina aurretik egiteko. Parte hartu nahi duenak abenduaren 4a baino lehen eman behar du izena; abenduaren 13ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Azaroaren 22tik 28ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Physis Versus Nomos

Folk esperimentalta. GEU elkarteak antolatuta.

Asteartea 26, 20:30ean, Parral tabernan.

GASTEIZ Gari, Libe, Anari eta Jon Basaguren

'Izan zaitez neu' jaialdia, Leocadia Zabalate elkartearen eskutik.

Osteguna 28, 20:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

BERTSOLARITZA

GASTEIZ Bertso afaria

Euskararen Asteko ekitaldien barruan. Manu Bendala eta Aroa Arrizubieta bertsolariekin.

Larunbata 23, 21:00etan, Foronda tabernan.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Hizkuntza gutxituak: iraun ala bizi'

Garabide elkarteak hizkuntza gutxituen inguruan antolatutako hirugarren mahai-ingurua. Gartzten Garaio, Isabel Arias eta Aitor Aldasororekin.

Asteartea 26, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

HAURRAK

LAUDIO 'Diskotxantxa'

Dantza ikuskizunaren ostean, askaria



MARGOLARIA

GASTEIZ 'Margolaria'

Mikel Urdangarin musikariaren bizitza ardatz hartuta, Oier Aranzabal zuzendariak ondutako filma da 'Margolaria'. Dokumentalaren emanaldiaren ostean, solasaldia izango da Mikel Urdangarin eta Oier Aranzabalekin.

Igandea 24, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

eta eskulan saioa ere izango dira. Kokoriko hezkuntza faktoriaren eskutik.

Larunbata 23, 17:30ean, Lamuzako Frontoi Etxean.

IKUS ENTZUN

MAEZTU 'Muga deitzen da pausoa' filma

Elbiria Zipitria andereñoari buruzko dokumentala. Emanaldiaren ostean, solasaldia izango da Maider Oleaga zuzendariarekin.

Asteartea 26, 18:00etan, udaletxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Irakurle Kluba

Slavenka Drakuli idazlearen 'Han ez banengo bezala' izango dute solasgai Gasteizko Irakurle Klubean. Iban Zalduak gidatuko du saioa.

Osteguna 28, 19:00etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean.

ARNasa GARA



www.arnasagara.eus    

Arnasguneak euskarari hauspoa ematen

Arnasguneek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzeko **Arnasa Gara** ekimenaren aurkezpen ekitaldiak egingo dira Euskal Herrian zehar abendura arte.

Kartzela serie digitalaren aurre-estreinaldia ikusteko eta aktoreekin solasteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

DATA	HERRIA
Urriak 3	AZPEITIA
Urriak 4	OREXA
Urriak 24	ALTZO
Urriak 25	AJANGIZ
Urriak 26	LESAKA
Urriak 26	ITZIAR
Azaroak 8	DIMA
Azaroak 9	ZEANURI
Azaroak 15	ABALTZISKETA
Azaroak 16	LEITZA
Azaroak 17	ETXARRI ARANATZ
Azaroak 22	ADUNA
Azaroak 23	GOIZUETA
Azaroak 23	URNIETA (Goiburu auzoa)
Azaroak 24	LEKEITIO
Azaroak 29	ZERAIN
Azaroak 29	ARAMAIO
Azaroak 30	LEINTZ GATZAGA
Abenduak 1	MARKINA-XEMEIN
Abenduak 3	BERMEO
Abenduak 13	AIA
Zehazteke	Ipar Euskal Herrian

ARAMAIO

AURKEZPEN EKITALDIA

+ *Mokadua*

2019

AZAROAK 29

18:00

KULTUR ETXEAN



HONEK EZ DU MINIK EMATEN

Min ematen duena da berdin ez kobratzea.
Min ematen duena da beste inor nire fisikoaz jardutea ez nire lorpenez.

EMAKUMEEEN AURKAKO INDARKERIA GABEKO KIROLAREN ALDE

A25

Emakumeen aurkako
indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna